



IBAIZABAL IKASTOLAren HEZKUNTZA-PROIEKTUA

DURANGALDEKO
IBAIZABAL KOOP.-ELK.

2021eko azaroan berritua

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA:

1.- Ikastolaren aurkezpena:

IBAIZABAL IKASTOLA

Ibaizabal Ikastola Durangaldeko ikastola da, kooperatiba-egitura duena eta Intxaurrondo kaleko 54. zenbakian kokatuta dagoena.

- HELBIDEA: Intxaurrondo kalea 54, 48200 Durango (Bizkaia)
- TELEFONOA: 94 621 58 77 Faxe: 94 621 82 42
- idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
- www.ibaizabalikastola.eus

Ibaizabal Ikastola bost ikastolen ekimenez sortu zen, ordura arte ikastola hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arteko hezkuntza-eskaintza baitzuten. Ibaizabal Ikastola sortzearekin, derrigorrezkoaren ondorengo hezkuntza-eskaintzea ere eman ahal izatea izan zen helburua, bai batxilergoa eta baita lanbide-heziketako zikloak ere.

1999-2000 ikasturtean zabaldu zituen ateak Ibaizabalek, bazkide-sortzaile moduan Durangoko Kurutziaga Ikastola, Elorrioko Txintxirri, Amorebieta-Etxanoko Andramari, Lekeitioko Azkue eta Ondarroako Zubi Zahar zituelarik. Bazkide-izaera ez badu ere, Galdakaoko Eguzkibegi Ikastola Ibaizabalera atxikita dago aspaldion.



Esan bezala, Ikastola hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arteko eskaintza dute eta Ibaizabal sortu zuten euren ikasleei ikastola ereduari jarraituz eta euskal sena indartuz Batxilergoa eta hurrengo mailetak ikasketak eskaintzeko. Gainera ikastola hauetako arduradunek bazuten kezka berezi bat Lanbide Heziketan zegoen –eta, oraindik orain, dagoen– eskaintza nagusiki erdaldunarekin, eta arlo horretan euskarazko eskaintzari bultzada bat emateko asmoak ere ekarri zuen Ibaizabal sortzea.

2004-2005 ikasturtean lanbide-heziketarako urratsa egiteko lanketari ekin zitzaion, 3 ikasturte geroago Haur Hezkuntzako goi-teknikariak trebatzeko goi-mailako prestakuntza-zikloa eskaintzen hasteko.

Aipatu sei ikastola hauez gain, familiak edo ikasleak eurak (zikloko ikasleen kasuan) bazkide dira. Langileek ere bazkide izateko aukera badute ere, gaur egun ez dago mota horretako bazkiderik.

Eusko Jaurlaritzak, Erabilera Publikoko adierazpen edo ebazpen ofizial baten bidez, Ibaizabalen izaera soziala eta irabazi-asmorik gabea onartu zuen 2006an (EHAA, 2006-7-13) → **herri-onura**. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak **lehentasunez** kotzat jotzen du Ibaizabal Ikastolak egiten duen lana. Kalitatean kudeaketa aurreratuko prozedurak darabiltza, beste hainbat aintzatespenekin batera.

Artezkari-tza-kontseiluko Lehendakariak eta Ikastolako Zuzendari Gerenteak, dagozkien eskumenak dituzte Erakundearen ardura nagusiak aurrera eramateko.

Ibaizabal Ikastolaren irismena ez da hezkuntzara mugatzen, eta bestelako zerbitzuak eta negozio-alorrak ere barnebiltzen ditu (eraikin berean gainera), jendartearekin hartu-emanen egon ahal izatea ahalbidetzen digutenak eta gure helburuen lorpenean eragingarriago izatea.

1999an Durangaldeko Ibaizabal Ikastola sortu zela esan badugu ere, urtebete beranduago, 2000. urtean, **Errotako jarduerak** jarri ziren martxan: Kirol Errota Gimnasioa, errota ostatu-aterpea eta taberna/kafetegia. Hauek jarduerok ere ikastolak kudeatzen ditu eta bertatik lortzen diren etekinak hezkuntzako proiektuak bultzatzeko erabiltzen dira (hezkuntza-proiektua sendotzen dute). Halere, etekin ekonomikoen emaila izateko baino, kulturaren eta euskararen suspertzaile izateko bokazioa dute (euskaraz egiten dituzten jarduerak guztiak).

Urte batzuk beranduago, etengabeko edo bizitzan zeharreko trebakuntzari ateak parez pare zabalduta, **ez arautu**aren barruko ikastaroak ematen hasi ginen: sorosle izateko titulazio profesionala, arreta soziosanitarioa, hizkuntzak, e.a. Langabeei nahiz lana badutenei bideratutako ikastaroak dira, doakoak herritarrentzat.

Gainera, Ikastolaren izaera soziala indartu egin zen Durangaldeko Mankomunitatearekin lankidetzan eskualdeko etxegabeei aterpea, mantenua eta garbiketa-zerbitzuak eskaintzen hasi ginenean. Gaur egun ere horretan dihardu Ikastolak (eta lan-ildo hori ere Errota zerbitzuen baitan integratuta du).

INGURUAREN AZALPENA ETA IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK

Aurreko atalean esandakoaren osagarri, esan dezagun Ibaizabalen sorrerako urteetan Durangaldeko biztanlegoak gora egin zuela. Ikastolek 1993an abiatutako publikazio-prozesuak zenbait lekutan eragindako *zauriak* gainditzeko ari ziren eta matrikulazioa ere egonkortzen ari zen orduan beste behin ikastolen altzora.

Ibaizabal, inguruko ekonomia eta hezkuntzaren suspertzaile izateko sortu zen, euskara komunikatze-hizkuntza duelarik hasieratik, baita hezkuntza- eta lan-munduan kultura berri bat zabaltzeko asmoz ere. Honengatik guztiagatik estrategikotzat eta premiazkotzat ikusten jarraitzen dute hasitako bideari eustea bai ikastola bazkideek eta baita Ikastolen taldeak berak ere.


Lehenengo ikasturtean Batxilergoko hiru modalitate eskaini ziren. Gela bi eta jantoki-zerbitzuarekin egin zen aurrera, matrikulatutako 34 ikasle eta 10 irakaslerekin; gaur egun 300 ikasle eta 25 irakasleren lanarekin antolatuta ditugu Batxilergoko eta Lanbide Heziketako zikloa, baina gehiago dira ikasleak ez arautuko eskaintza kontuan hartzen baldin badugu, eta gehiago dira langileak irakasle ez diren hezkuntzako langileak eta zerbitzuetakoak ere batuz gero. Kopurutan gora ezezik, kualitatibotasunean ere nabarmen egin du hobera Ibaizabal Ikastolak sorreraz geroztik.

Hasieran erronka ikasleen beharrei erantzutea, materiala lortzea eta ikastolaren funtzionamendua antolatzea izan zen. Hasieratik irakaskuntza hurbila izan du helburu Ibaizabalek, ikasleekin eta familiekin lankidetzan. Bestalde, kontzertazio osoa lortzeko bidea luzea izan zen, baina 2003-2004 ikasturtean lortu zen lehenengoz ikasgela guztiak kontzertatuta izatea.


Urteak aurrera joan ahala, sortu eta indartu dira beste helburu, erronka eta asmo batzuk, hain zuzen ere, euskal giroan euskaraz hezteko helburua sendotu, akademikoki ondo jantzita izate hori muturreraino eramateko asmoa, gaur egungo gizarteak dituen eskakizun teknologikoetan ongi prestatuak egotea bai irakasle eta bai ikasleak, pertsona bezala ingurune fisiko zein sozialarekiko errespetua barneratzea, naturarekiko konpromisoa sakontasunez lantzea azken urteetako aldaketa klimatikoari aurre egingo dion gizartea lortzeko asmoz, elkarrekin lan egiten trebatzea ikasleak...

Asmoak proiektu jakinetan gorpuztu dira, eta proiektuok bikaintasun-parametroetan lantzea ahalbidetu dute zenbait tresnak kasu batzuetan, kanpo-agente independenteek egitasmoak kreditatu eta zertifikatuz: jasangarritasun-diploma, eskualde-mailan garatutako mugikortasun-programa publikoan partaide gara hasieratik (*Cycle Friendly Employer* proiektu aitzindari auditatua), *Bai Euskarari Ziurtagiria* goren mailan eta *Bikain*, goi-mailako IKT heldutasun teknologikoa, e.a. Ikasleak bizitzarako (eta hurrengo ikasketetarako) ongi prestatuta ateratzeko helburu estrategikoari erantzuteari dagokionez ere, badira hori berresten duten datu objektibo konparagarriak: adibidez, USE gaingitzen duten Ibaizabaleko ikasleen ehunekoa gainerako Ikastolekiko edota EAEko ikastetxe guztiekiko gainetik egotea, gure ikasleek USEn ateratzen duten batez besteko notak batezbesteko orokorra gaingitzea, e.a.

Honek erantzun egokia izan du ikasle eta familien aldetik eta matrikula-datuek erantzun on hori baieztatu dute urterik urte. Ibaizabaleko ikasleen jatorria anitza da; Ikastola bazkideen egoitzak non dauden kokatuta begiratu besterik ez dago (ikusi, eredurako, 2020/2021 ikasturteko datuak eskuinetara dagoen grafikoan). Hori eragozpen izatetik urrun dago; ikasleei harreman berriak egiteko aukerak biderkatzen baitizkie horrek, batez ere bizi duten nerabezaro-garai horretan.



Hala, gaur egun, Batxilergoa (Humanistikoa, Zientifikoa eta Teknologikoa) eta Haur Hezkuntzako Goi-mailako Lanbide-heziketako Zikloa eskaintzen ditugu.



Lanbide Heziketa lortzeko bidea ere, ez zen erraza izan. Hasierako ahalegina Markinako Lea Artibai ikastetxearekin lankidetzan zikloak eskaintzea izan bazen ere, ahalegin honek ez zuen fruiturik eman. Honela 2007-2008an gure lehen zikloa jarri genuen martxan (lehen esan bezala, aurretik 3 urteko lanketa egin izanaren ondorioz): Haur Hezkuntzako goi-teknikaria (goi-mailako lanbide-heziketako zikloa).

Ziklo honetako ikasleen profila aldatu egin da azken urte hauetan. Normalean Lanbide-heziketara gerturatzen diren ikasleen nahia eta zikloaren helburua lana lortzea izaten da; ziklo honetan, ordea, azken urteetan laneratze-tasak baxuak izan dira, krisiak eragindako haur txikien eskolaratze baxuagatik eta arrazoi demografikoengatik. Hala ere, honek ez du eraginik izan gure matrikulazioan, eta ikasturtero plaza guztiak bete izan dira, zikloak duen prestigioaren eta izen onaren adierazgarri. Ikasle askok gaur egun unibertsitate-ikasketetarako –bereziki Haur Hezkuntzako unibertsitate-ikasketak edo parekoak egiteko, noski– prestatze-maila modura ikusten dute goi-mailako zikloa.

Ziklo honetan konpetentzia orokorrak lantzeko metodologia berriarekin hasi ginen lanean orain dela hamar bat urte, Hain zuzen ere *ikaskidetza* deituriko metodologia da inplementatzen ari garena, oinarrizko printzipioa bezala talde-lanean egoera edo erronka errealak egitea dakarrena. Egitasmo honen helburua irakasleak bere lan-jardunaren inguruan gogoeta egin eta langintza honetan hobetzeko tresnak eskaintzea da.

Gaur egun Ibaizabalek bazkide sortzaile diren ikastolen matrikuletan ere positiboki eragiten duela esan genezake. Finkatu dugun lan-ildoak Ikastolen mugimenduaren atxikimendu osoa du eta aurrera begira gure eskaintza hobetzen jarraitzeko asmo sendoa dugu.

2.- Zer da Ikastolaren Hezkuntza Proiektua:

Hezkuntza Proiektua ikastolaren *bizitza* gidatzen duen tresna da. Ikastolan egiten diren proiektu guztiek hezkuntza-proiektu honi erantzungo diote, eta bertatik elikatuko dira. Hezkuntza-proiektuan ondorengo ezaugarriek dute lehentasuna:

- Ikastolak dituen hezkuntza-asmoak argi adieraztea
- Pedagogia-praktika gidatzea eta orientatzea
- Ikasleen hezkuntzan eragile garen guztion koherentziarako gida izatea.
- Elkarlan eta adostasunetik eratorritakoa izatea

3.- Zeintzuk dira eragileak?

Ikastolako komunitateak (familia-kide, tutore, langile, kolaboratzaile eta ikasleak) esplizitatu, adostu eta planifikatuko ditu ikastolako hezkuntza-asmoak. Zentzu honetan, ikastolako bizitza eta dinamika osoari eragingo dio.

4.- Zein dira gure Hezkuntza-proiektua eraikitze ardatz nagusiak?

Lehenik eta behin, esan dezagun legeria dela Ibaizabal Ikastolak bere Hezkuntza-proiektua hezurmamitzeko ezinbesteko abiapuntua. Ibaizabal Ikastolaren funtzionamendua eta egituraketa gaur egun indarrean diren eta aplikagarri zaizkigun legeek zedarritzen dute, maila guztietan. Lege-markoari ez diogu berariaz gehiegi erreparatuko dokumentu honetan, derrigorrezkoa baita haren onarpena hezkuntza-agente guztion aldetik, marko publikoa eta ezaguna delako, eta, ikastegi guztioi komuna zaigun aldetik, ez duelako balio erantsi edo Ibaizabal desberdintzen gaituen adierazgarririk eskaintzen. Hortaz, gehiago, Ibaizabal Ikastolari propioa eta berezkoa zaion eta gainerakoengandik ‘berezi’ egiten gaituena azpimarratzen ahalegintzen da honako Hezkuntza-proiektua.

3 ardatz aipatuko ditugu kokapen horri laguntzeko:

Bere errealitatean sustraituta

Ikastolak bere errealitateari –fisiko zein sozial– eta testuinguruari egokitutako proiektua izango du. Durangaldeko identitatea kontuan izan eta haren inguruan ardaztuko du bere *bizitza*, aldaketa fisiko, kultural eta teknologikoetara egokituz, Durangaldeko jendartearen eragile aktiboa bihurtuz, ingurune naturalaren zaintzarekin aktiboki konprometituz, eta Ikastola Durangaldeko baloreen, ikusmoldeen eta ohituren elikatzaile eta bizigune izango da.

Gizarte hezitzailea

Ez dugu pentsatu behar eskola denik hezkuntza-proiektuaren eragile bakarra. Proportzionalki astean eta hilabeteen zehar gutxi dira ikasleak eskolan pasatzen dituen orduak, baita ere txikia eskolak besteekiko izan dezakeen eragina. Pertsonaren hezkuntzan, eskolak bezainbeste, familiak, gizarte eta bere ingurune fisiko naturalak eragiten dute. Beraz, jendarte bera hezitzailea izatea lortzea da helburu.

Herri edota hirietako asmoak hezitzaileak izatea lortzen dugun heinean, aurrerapauso handia ematen ari garela esan dezakegu.

Eraldaketa honetara denok gaude deituta: familiak, eskolak, erakunde sozialak, eragile politikoak eta jendarte bere osotasunean. Gizarte hezitzailea izatea lortzen dugun heinean, gure haur eta gazteek euren giza garapenerako testuinguru egokia aurkituko dutela ziurta dezakegu, eta bizi diren ingurune fisiko-naturalean gozatu eta eraldatzeko aukerak zabalduko dituztela.

Euskal Curriculumak adierazten dituen eta bizitzarako ezinbestekoak diren konpetentziak lortzeko tresnak ikasleen eskura jartzea dagokigu. *Ikasten eta pentsatzen jakin, egiten eta ekiten jakin, elkarrekin bizitzen jakin, norbera izaten jakin eta komunikatzen jakin* konpetentziak ezinbestekoak dira pertsonaren garapen integrala bermatzeko. Gainera, gure testuinguruaren eskakizunei erantzuteko baliabide ezinbesteko bilakatu dira IKTak. Egungo gizartean informazio- eta komunikazio-teknologiek duten garrantzia kontuan hartuta, *konpetentzia digitalaren* garapena ere garrantzitsutzat jotzen dugu. Helburua bai ikasle, irakasle eta hezkuntza-komunitate osoa IKT baliabideen erabilera eragingarria eta arduratsua egiteko gaitzea da. Ikuspuntu horretatik, konpetentzia digitala beste konpetentzien lorpenerako osagai bilakatu zaigu.

Bizitza-filosofia

Azkenean, Hezkuntza Proiektuak “bizitza-filosofia” baten isla izan beharra du. Bizitza ulertzeko modu bat. Norberari –eta besteekin batera– zorientasuna eta benetako ongizatea lortzeko aukera eramango dion filosofia. Naturarekin bat eginda komunitate guztiaren ongizatea bilatuko duena. Hau guztia da Hezkuntza Proiektu baten azken xedea.

IKASTOLAREN XEDEA ETA IKUSPEGIA:

Dokumentu honek Durangaldeko Ibaizabal kooperatiba-elkartearen xedea, ikuspegia, balioak eta helburuak zeintzuk diren ezagutzera emateko asmoa ere badu, horiek ere Hezkuntza-proiektuan eragiten duten neurrian. Gure erakundearen ikuskera globalerako onuragarria eta baliagarria izango delakoan.

Aitortzen dugu Durangaldeko Ibaizabal kooperatiba-elkartearen hezkuntza-dimentsioari begirako txostena dela hau, neurri handian, nahiz eta Ibaizabalek hori baino jarduerarismen handiagoa duen. Hezkuntzaren dimentsioa da, ordea, gure erakundearen izateko arrazoia eta jarduera nagusia.

MISIOA: Ibaizabal, inguruko ekonomia eta hezkuntzaren suspertzaile izateko sortu zen, baita hezkuntzan eta lan-munduan kultura berri bat zabaltzeko asmoz ere. Eta euskara komunikatze-hizkuntza izanda, betiere. Ikasleei heziketa egokiena eskaini nahi diegu, pertsona moduan beren osotasunean heldu eta garatu daitezen. Ikastola bazkideekin eta ikastolen taldearen baitan jardunda.

ESTATUS JURIDIKOA:

Irabazi-asmorik gabeko kooperatiba da Durangaldeko Ibaizabal, Eusko Jaurlaritzak onura publikoko izendatuta dauka eta Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasunezkoztat jotzen du gure kooperatibak egiten duen jarduera.

HELBURUAK:

ESTATUTUAK

Durangaldeko Ibaizabal Kooperatiba-elkartearen Estatutuek honako helburua diote esleitua erakundeari:

- Euskal Herriko pertsona guztiei, jaiotzen direnetik eta adin-mugarik gabe, hezkuntza-zerbitzu anitza eskaintzea, zuzenean edo beste erakunde batzuekin lankidetzan jardunda.
- Enpresa- eta hezkuntza-mailan ahalik eta eragingarritasun handiena lortzea, interes orokorrerako balioko duten zerbitzu osagarriak eskainita. Ildo horretan, segidako sekzioak edo sailak bereizten dituzte gure Estatutuek: hezkuntza-sekzioa (arautua eta ez arautua) eta Errota sekzioa (kafetegia, aterpetxea, ostatua, gimnasioa...).

Estatutu horien berorien arabera, betekizun nagusiak, berriz, beste hauek dira, hitzez hitz:

- DBHren ondorengo hezkuntza garatzea eta eskaintzea: Batxilergoa, hezkuntza profesional ez arautua eta formazio-zikloak.
- Euskara arlo profesionalean eta lan-munduan sustatzea.
- Kooperatiba-kultura sustatzea.

LEGERIA

- Batxilergorako indarrean den Dekretuak dio ikasleei prestakuntza osoa, adimen- eta giza-heldutasuna, eginkizun sozialak garatzea eta bizitza aktiboan erantzukizunez eta gaitasuna izanik sartzeari ahalbidetuko dizkien ezagutza eta trebetasunak ematea dela Batxilergoko etaparen azken xedea.
- Baita ikasleak norbanako gisara, jendarteko biztanle aktibo bezala eta natura zaintzearekin eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa izateko neurrian helduen bizitzari ekiteko gai izateko prestatu behar dituela ere.
- Ikasleak euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarritzko gaitasunak lortzeko gaitzea, eta bizitza osoko ikaskuntza iraunkorra garatzeko gai izan daitezen formatzea Batxilergoaren helburu orokor dira Dekretuaren arabera, azkenik.

- ✓ Lanbide-heziketarako legez zehaztuta dauden helburuen oso antzekoak dira goian zerrendatutako horiek. Horiez gain, Lanbide-heziketaren helburua ikasleak lanbide-eremu jakin batean jarduteko prestatzea da, eta prestaketa balioanitztea ematea, bizitzan zehar gerta daitezkeen lan-aldaketetara egokitu ahal izan daitezen. Batxilergorako esandakoaz gain, Lanbide-heziketak produkzio-sistemaren kualifikazio-eskaerei erantzuteko moduan prestatu behar ditu ikasleak.
- ✓ Lanbide-heziketa espezifikoaren metodologia didaktikoak zientzia-, teknologia- eta antolaketa-edukien integrazioa sustatuko du. Era berean, bere kabuz ikasteko eta taldean lan egiteko gaitasuna ahalbidetuko dio ikasleari.

HEZKUNTZA-PROIEKTUA

Ibaizabal Ikastolaren Hezkuntza-proiektuak Ikastolaren irudia indartzea, ikaslea ikasketa-prozesuaren ardatza izatea (ikasleen ezaugarri eta premietara egokituta), e.a. ditu jarrita helburu eta lehentasun modura.

Dena den, helburuak zehatzago eta argiago jasotzen ditu gure Plan Estrategikoak, ildo estrategikotara eta azpi-helburutara ekarrita. Gainera, Plan Estrategikoaren itzalpean urtero egiten den Urteko Kudeaketa-planak helburu orokorrak lortzeko bidean ikasturte jakin baterako markatzen diren zeregin eta balorazio-adierazle zehatzak definitzen ditu.

Plan Estrategikoan jasota dauzkagun 8 lerro estrategikoak azalduko ditugu segidan, hasteko (Ibaizabal Ikastolaren osotasuna ulertzeko eta, testuinguru horretan, honako Hezkuntza-proiektuarekiko uztarketa konfiguratzeko, kokapen baliagarria eta beharrezkoa delakoan gaude). Atal horren jarraian, Hezkuntza-proiektuan bilduta datozen eta Ibaizabalen nortasuna hezurmamitzen duten elementuak datoz banan-banan definituta.

PLAN ESTRATEGIKOA

Etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa aurreratuaren eredupean exekutatzen dira ondorengo ildo estrategikoak (helburu estrategikoak). Ildo estrategikoak lauki banaren barruan datoz formulatuta eta bakoitzaren azpian gero edukiak, labur-labur.

L1 Batxilergoko eskaintza konpetentea eskaintzea, ikasleak bizitzarako ongi prestatuta atera daitezen.

Helburu operatiboak → Atal honen peko neurgaiak: ikaslea erdigunean, konpetentzietan oinarritutako metodologia, metodologia berriak, esperimentazio-erronkak, diziplinarreko proiektuak, tutoretzak, orientazioa, errefortzuak, SPS (USE prestatzeko saioak), emaitza ahulen analisia, aukerako ikasgaiak proposatzeko dinamikotasuna, promozio-datuak, ebaluazio-sistema, espedienteko kalifikazioak, USE emaitza absolutuak eta konparatiboak irakasgaia nahiz orokorrean, irteerako hizkuntza-profila... ← Helburuak, ekintzak, adierazleak eta betetze-mailak.

L2 Lanbide-heziketako Haur Hezkuntzako ikasleen irteera-profila birdefinitzea, lan-aukerak zabaltzeko.

(Ikus L1 lerro estrategikoan esandakoa; neurri handian baliagarria honetarako ere)

L2 Eskaintza ez arautua definitzea, arautuaren eta ez arautuaren arteko osagarritasuna bilatuz.

L3 Errotako jardueraren helburuak Ikastolaren helburuekin lerrokatuz, zerbitzuak hobetzeko urratsak ematea.

Tabernaren irudia eta funtzionamendua hobetzea: terraza, zerbitzarien txandak berregokitu, berdegunea 'abegikorrako' jarri (estalkia, kanala garbitu, argitxoak, zakarrontziak, karteltxoak...), bideozaintza, espazioen alokairua... Sozializaziorako gune, arnagune eta ikasleen lanaren erakusleho.

Ostatu-aterpetxea ezagutaraztea eta errentagarritasuna handitzea. Aterpetxe soziala (lizitazio berriak lortu, kontratu txikiak, kudeaketa...).

Gimnasioa bezero berriengana heltzeko eskaintza doitzeko, zerbitzuaren eskaintza euskalduna bermatzearekin batera. Makinen zaintza, inbertsioak, komunikazioa kirolzaletasuna sustatzeko, kirol-ikastaroen eskaintza, arreta pertsonalizatuko planak, tenis-pistak berroneratzea, kudeaketa zorroztea, erabiltzaile gehiago erakartzeko kanpainak...

L4 Ikastolaren irudia indartzea.

Ibaizabalen nortasunarekin bat datozen proiektuak garatzea: Hizpro (hizkuntzen proiektua); antzerki-tailerra eta antzezlanetara irteerak; Seaska, Tanta eta Errigora; Elkartasun Ikastolak; Agenda 2030 eta jasangarritasun-diploma; Cycle Friendly Employer; hezkidetza ikasle eta langileekin; Oxford azterketagune homologatua (2021/2022 ikasturtetik baita Cambridge zentro homologatua ere); Trukaldia; Gaztainerre, Udaberri Jaia eta Kultura Eguna; eragile eta adituen hitzaldiak eta tailerrak; e.a.

Hautematearekin lotura duten gainerako elementuak: organigrama, trebakuntza, lantaldearen osaera, tutoretzak, orientazioa, errefortzuak, euskalduntasuna, maila akademikoa, giroa, espazio fisikoak... (guztiak neurtzen dira). Galdetegiak sistematikoki erabiltzaileei, familiei, ikasleei, langileei... emaitzen berri ematen zaie interes-taldeei eta baita hartuko diren zuzentze-neurriez informatu ere.

L5 Egonkortasuna eta kudeaketa eragingarria ziurtatzea.

Baliabideen kudeaketa eragingarria eta gardena: baliabide ekonomikoak (kudeaketa zuzen eta gardenaren adierazgarri, esan dezagun kanpo-auditoretza enpresa independente batek ikuskatzen dituela urtero gure kontuak, nahiz eta hori egiteko obligazio legalik ez dugun), lege-konpromiso eta -betekizunak, giza baliabideak, IKT baliabideak, baliabide espazialak eta materialak, garraio- eta jantoki-zerbitzuak.

Matrikulazio-datuak (ikasle-kopurua).

L6 Partaidetza.

Komunitate-izaera, ikasleen lantaldeak (Eko-eragileak, ikasle-kontseilua, eragintaldea...), familia-ordezkarriak, auzolana, erabaki-organoak, txosna, Ikastola bazkideekiko harreman-fluxua...

L7 Berrikuntza.

Langileen izaera ekintzailea eta ikertzailea sustatzeko, unitate didaktikoak sortu eta erabilaraztea, esperientziak ezagutzea, berrikuntza metodologikoak eta formazio profesionala.

Ikastolaren beraren izaera berritzailea indartzeko, alor honetan egindakoak egiaztagiriak eta aitortzak ondorio izatea, diziplinarteko proiektuak eta mikro-proiektuak berezko kontsideratzea, esperientzia errealetan oinarritutako erronkak, lankidetzak-egitasmoak, lanbide-heziketako proiektuak...

L8 Komunikazioa.

Kanpo- eta barne-komunikazioa eta aliatuekiko harremana.

IDENTITATE-PRINTZPIOAK:

Aurretik esan bezala, Ibaizabalen nortasunean bereizgarri diren ezaugarriak zerrendatuko ditugu atal honetan (bere horretan jarri ditugu multzokatuta –gogoeta estrategikoan erauzi ziren moduan–, nahiz eta zenbait printzipio bitan edo hirutan banatzea egokiagoa zatekeen: adibidez, herri-izaera eta ingurumenaren babesa ez dirudi bakartzat hartzekoak direnik).

Dena den, aurretik, ekar dezagun gogora herri-ekimenetik sortutako ikastola garela, euskara eta euskal senarekin konprometituta eta, era berean, beste kulturetara irekita dagoena. Ikasleei heziketa egokiena eskaini nahi diegu, pertsona moduan beren osotasunean heldu eta garatu daitezten. Helburu hori lortzeko, ikastolako partaide guztien arteko lankidetzak bultzatzen dugu, ikasle guztiak kontuan hartuta. Langintza horretan etengabe hobetzeko ahalegina egingo dugu.

Ibaizabal Ikastola Ikastolen kolektiboaren kide da eta Euskal Herriko ikastolen sarea garatu eta bertako partaide eraginkor izateko konpromiso sendoa du.

Ibaizabal Ikastolak gizarte-titularitatea du eta doakoa izateko bokazioa du. Arrazoi ekonomikoengatik inor ez baztertzeko asmo sendoa adierazten du Ibaizabalek, baina funtzionamendua bermatzeko kuotak ezarri beharra du gaur gaurkoz. Argi adierazten dugu menpekotasun ekonomikoak ez dituela gure nortasuna eta jarduteko modua baldintzatuko.

Bi sekziotan garatzen da gaur egungo jardura: *Errota* sekzioa eta Hezkuntza-sekzioa.

Errota sekzioaren ezaugarriak hauek dira:

Finantziario-iturri propioak lantzen ditugu, hezkuntza-proiektua sendotzeko erabiltzen ditugunak. *Errota* sekzioak ikastolaren filosofia hartzen du funtzionatzeko: euskalduna da; euskarazko eskaintza egiten du.

Aletu ditzagun jarraian oinarritzko helburuak eta identitate-printzipioak [nor gara / zer izan nahi dugu]:

1.-Euskalduna

Euskararekin eta euskal senarekin konprometitua eta, era berean, beste kulturetara eta munduko ikuspegi zabalera irekita. Ibaizabal Ikastola euskalduna eta euskaltzalea da; euskal nortasuna garatzea ahalbidetu behar du.

Euskal Curriculum: Ibaizabal Ikastola ikasleek, familiek, langileek, ikastola bazkideek eta laguntzaileek osatutako hezkuntza-komunitatea da eta bere bizkarrezur den ardatza berariazko hezkuntza-proiektu euskalduna da, curriculum-proiektua eta hizkuntza-proiektua bere baitan dituen.

ERRONKA ESTRATEGIKOA A)

“Minorizatua dagoen edozein hizkuntzaren normalizazioaren helburua hizkuntza horren ezagutza eta erabilera hedatzea da, dagokion eremu geografiko osoan eta gizartearen funtzio guztietan”. Hala dio ikastetxeetan hizkuntza normalizatzeko eta ikastetxeak hizkuntza-normalizaziorako eragile izan daitezen Eusko Jaurlaritzak abian duen **Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri Programak**.

Eusko Jaurlaritzaren Ulibarri Programara atxikita dago Ibaizabal Ikastolaren Hizkuntza Normalizazioko Proiektua (HNP). Proiektu horretan hezkuntza-komunitate osoa dugu sartuta. Lau urterik behin, Proiektu hori berritzen du Ikastolak, Jaurlaritzak markatutako kalitate-parametroak eta tresnak jarraituta: ikastetxearen euskararen egoera ezagutzeko *Branka* eta *Mintzagrama* izeneko diagnosi-tresnak, eta Hizkuntza Normalizazioko Plana eta Memoria erabilita (testuinguru soziolinguistikoa, ikastetxearen abiapuntua, helburuak, egitasmoak eta jarduerak, metodologia, irakasleen prestakuntza, betetze-maila...). 2021/2022 ikasturtean ari gara Proiektua eguneratzen, hala dagokio-eta, Jaurlaritzaren prozeduren arabera. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren metodologiak agintzen duen moduan, herriko erakundeekiko lankidetzan jarduten dugu, Ikastolak eta inguruneak elkar elikatu behar dugulako eta eraginkortasuna normalizazioan diharduten beste erakunde eta eragileekin lankidetzan jardunda besterik ezin delako lortu. Hala, Durangoko AEK, EHE, Bertsozale Elkarte, Euskaraldiko batzordea, euskararen eguneko lantaldea, Berbaro Elkarte, GUKA, Anboto hedabideak eta beste askorekin dugu harreman sistematikoa.

Ulibarri programaren barruan, Ibaizabal Ikastolaren 2021/2022 Urteko Planean jasotako egitekoen helburu estrategiko nagusiak segidakoak dira:

- * Ikastolako komunitate guztia hizkuntza-proiektuaren garrantziaz jabetzeko zabalkunde eraginkorra egitea
- * Hizkuntza-proiektua guztiz egonkortzea, eta hobekuntza-zikloak martxan jartzea.
- * Eremuz eremu euskararen erabilera areagotzeko pausoak ematea. Eremu instituzionala eta ikasgela-barruko nahiz -kanpoko eremu pedagogikoak dira Ibaizabalen desberdinduta ditugunak hizkuntza-plangintzari dagokionez. Gurean, gainera, hizkuntzaren trataera instrumentalari garrantzia handia aitortzen dio HNPK: zehar lerroen hizkuntza-trataera, euskara eta euskal kultura sustatzeko ekintzak, interakzio didaktikoa (hizkuntza-erabilera ikasmaterialean, jolasaldietan, egonaldietan, Ikastolako familia-tipologia bakoitzarentzat, kanpo-harremanean, e.a.). Arlo horietan ongi posizionatuta dago Ibaizabal Ikastola, eta hori, hein handian, gure Ikastolaren aliantza-politikari esker da (elikadura), eta Ikastolak herritar orori irekita dituen zerbitzuek arnagune eta kulturgune modura kokatzeko ematen diguten plataformari esker (oihartzuna/proiektzioa). Zalantzarik ez dago, noski, atzeak erakusten duela aurrea nola dantzatu, eta, horregatik, ikasleekin egindako lanketa sakona da horren guztiaren ezinbesteko aurretiazko iturburu.

ERRONKA ESTRATEGIKOA B)

Euskal Herriko Ikastolen Elkartaren mugimenduaren parte izateak, gainera, beste erronka sendo batean sartuta egotera eraman gaitu, euskarak beharrezkoa duen biziberritzeaz kezkatuta. 2021/2022 ikasturte honetan bertan bideratzen ari garen **Hizkuntzen Trataera Integrala** berrikuntza-prozesuak Ikastolak oro har, eta Ibaizabal Ikastola espezifikoki, etorkizunean hizkuntzaren normalizazioan eragile eragingarriago izatera eramango gaitu. Ezkortasunaren paradigmatik atera eta ahalaren eta erabakimenaren paradigmara igarota, Ibaizabal Ikastolako curriculumean konpetentzia eleaniztuna eta diziplinaren alfabetizazioa garatzeko, hizkuntzaren dimentsioa aintzat hartzen duen ikuspegi metodologiko globala zehaztea du xede prozesuak. Europako gomendioak, euskal curriculum, Hizkuntzen Trataera Bateratua, Curriculumaren Trataera Bateratua eta Hizkuntza-proiektua aintzat hartuta ari gara bideratzen prozesua -guztiz modu integralean, alegia-, ikasmaterialetan, ebaluazioan, langileengan eta gure Hizkuntza-proiektuan positiboki eragiteko. Ikastolako HIZPRO batzordea da gidari, nahiz eta Ikastolako estamentu guztiak izan partaide. Kasu honetan ere, diagnostikoaren eta sentsibilizazioaren bitartez, gelako aplikaziora iritsi nahi da, baina lankidetzaz ezinbestekotzat hartuta. Beraz, beste behin, espero izatekoa da helduleku apartak izango dituela Ibaizabal Ikastolak emaitza arrakastatsua erdiesteko.

2.-Eleanitza

Ikasle euskaldun eleaniztunak. Euskaldun eleaniztunak trebatzea dugu helburu.

3.-Herriarekin eta ingurune naturalarekin konprometitua

Ibaizabal Ikastola herri-ikastetxea da, herri-ekimenetik sortua eta herrirako lan egiten duena. Lankidetzazko aliantzak ditu eratuta inguru hurbil nahiz urrunagoko elkarte eta entitateekin, eta Durangalderako jarduerak antolatzen laguntzen du. Aliantzak: Ikastolen Elkartea, Zirimola, Ikastola bazkideak, Durangoko Udala, Durangaldeko Amankomunazgoa, hezkuntza-administrazioa, instituzioak eta alderdi politikoak, Durangoko eta eskualdeko elkarteak, ongintza- eta elkartasun-erakunde nahiz -fundazioak, unibertsitateak...

Durangaldeko identitateari lotua (testuinguru fisiko zein sozialari). Ikastola Durangaldeko baloreen, ikusmoldeen eta ohituren elikatzaile eta bizigune izatea. Aldaketa fisiko, kultural eta teknologikoetara egokituz, eskualdean eragile aktibo izatea. Natura zaintzea. Naturarekin bat eginda, hezkuntza-komunitate guztiaren ongizatea eta norbera eta besteekin batera zoriontsu izatea bilatzea.

Etorkizun jasangarriago baten alde dihardu lanean Ikastolako komunitateak. Esaterako, ikasleekin Lurraren egoeraz eta kontrolik gabeko garapenak sorturiko arazoez jabetze-ekintzak bideratzen dira arlo kurrikularrean zein esparru ez formaletan. Baita birziklatzearen eta berrerabileraren inguruan ere. Ikasleekin kontsumismoa baztertu eta kontsumo arduratsua bultzatzeko egiten den lanarekiko koherentziaz, Ikastolaren kudeaketan ere, uraren, argindarraren, paperaren... gastua arduraz kontrolatuko da. Halaber, ongizatera begirako bitartekoetan, pertsonekin begirunetsuak diren teknologiak erabiltzera orientatuko du bere jarduera.

[‘Naturaren zaintza’ *motz* geratu da kontzeptu modura gaur egun. Horren lekuan, ‘garapen jasangarria’ adierazpide osoagoa zaigu. Bigarren horretara modulatu dugu identitate-printzipio hau txosten honetako hurrengo atalean: *Identitate-printzipioen nolakotasuna* atalean]

4.-Inklusiboa:

Bizikidetza; begirunea; aniztasunaren trataera; ekitatea; genero-arrakala murriztea/desagerraraztea; hezkidetza; jarrera hezitzailea; hezkuntza-prozesu integrala; errespetua besteen jatorri ideologikoari, erlijiosoari, ekonomikoari; diskriminaziorik eza...

Jendartea hezitzaile izan dadin ekarpena egitea.

Bizikidetzarako beharrezkoak diren arauak adostu eta betetzen ditugu, begirunezko jarrerak bultzatuta.

Ikasle bakoitza ezberdina dela kontutan hartuz, bakoitzaren egoera ezagutuz, bere garapena lortzen lagunduko dugu, maila akademikoan eta gizabanako moduan.

Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko tresnak pentsatu, diseinatu eta jarriko ditugu eskura.

Irakaslearen hezitzaile izaera bultzatzen dugu. Gure ikastolan hezkuntza-prozesua integrala dela ulertzen dugu.

Ikaslearen jatorri ideologikoa, erlijiosoa, ekonomikoa anitza dela jakinik, balore ezberdin horrekiko errespetua landuko dugu, berdinen arteko ezberdintasunari balioa emanez.

Hezkidetzan hezten ditugu ikasleak.

5.-Hezkuntza integrala bultzatzen duena:

Ikasle bakoitzaren gaitasunak muturrera eramaten lagunduko dugu, beraien arteko desberdintasunak errespetatuz.

Euskal Curriculumak adierazten dituen eta bizitzarako ezinbestekoak diren konpetentziak lortzeko tresnak ikasleen eskura jartzea.

Azken horren harira, edukien ezagutza lantzeaz gain, balore, jokabide eta jarrera jakin batzuk landuko ditugu halako ikasleak nahi ditugulako: solidarioak, ekintzaileak, arduratsuak. Ikastolak ikasleengan eragin behar dituen gaitasunak edo konpetentziak: ikasten eta pentsatzen jakitea, egiten eta ekiten jakitea, elkarrekin bizitzen jakitea (herritartasun demokratikoa, kontzientzia zibiko arduratsua), norbera izaten jakitea (erantzukizunez bizitzen jakitea eta pertsona modura garatzen jakitea) eta komunikatzen jakitea (idatziz zein ahoz, jarriotasunez eta zuzentasunez) ezinbestekoak dira pertsonaren garapen integrala bermatzeko. Konpetentzia digitala gainerako konpetentziak eskuratzeko osagaia da (ikasleak IKT baliabideen erabilera eragingarria, erraza, kritikoa eta arduratsua egiteko gaitzea).

6.-Partehartzailea:

Ikaslearen hezkuntzan eta ikastolaren kudeaketan hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea bultzatuko dugu (geure kooperatiba-izaerari kasu eginda): langile, ikasle, familia-kide, ikastola bazkideak eta laguntzaileak.

Elkarte dinamikoa gara; etengabeko hobekuntzaren ideia barneratuta dugu. Irakasle guztiek proiekturen batean parte hartzea hobetsita dago. Berrikuntza: konpetentzia diziplinarrak, diziplinartekoak eta metadiziplinarrak (aurreko puntuan azaldutako konpetentzietako bat baino gehiago batera jorratzeko proiektuak) gelan txertatzea (+ orduz kanpoko ekintzak), metodologia berriak eta aktiboak ezartzea, ikasle-profila, Ikastolako irakasleria ekintzailea eta ikertzailea izatea, ebaluazio-prozesua eta tutoretzako ekintza-plana...

IDENTITATE-PRINTZPIOEN NOLAKOTASUNA:

[Ikus aurreko ataleko 3. puntuan esandakoa] Gure identitate-printzipioetan bloke oso bat hartu izan du azkeneko urte luzeetan ingurumenak ('Eskolako Agenda 21' edo egun 'EA2030' deitzen dena gidari izan delarik). Hori horrela, emaitza operatibo handiak eman ditu Ikastolako ingurumen-batzordetik egindako lan-eskergak: ikasleen artean ingurumena errespetatzeko balioa, kontsumo arduratsua eta herritartasun demokratikoa balioak hedatu behar direla barneratuta dute irakasleek eta saiatzen gara gure hezkuntza-eredua balio hauetan oinarritzen.

Gaur egun, printzipio historiko horrek esparru eta ikuskera zabalagoa dakartzagun jasangarritasunaren dimentsiora egin du jauzi, baina bera jarraitzen du izaten funtsak: hezkuntza-komunitatean ingurumenaren egoeraz ezagutza zabaltzeak ingurumenaren egoerarekiko sentsibilizazioa areagotzea ekarri digu (ezagutzen dena baizik ezin baita baloratu eta maitatu), eta, oro har, beraz, jasangarritasun iraunkorreko helburuekiko ezagutza eta sentsibilizazioa lantzea da jasangarritasunaren aldeko jarrerak eta konpromisoak eragiteko bidea. Bistan denez, ondorioz, edozein kalitate-prozesutan bezala, aldaketa efektibo eta praktikoraino iritsi behar da ezein gogoeta. Ildo horretan, Ibaizabal Ikastolan jasangarritasuna lortzeko prozesuak abiatuta dauzkagu, eta horietan sakontzea ezinbestekoa izango da benetako eraldaketa lortzeko Ikastolan bertan eta baita Ikastola partaide aktibo den ingurunean: udalerrian, eskualdean, hezkuntza-komunitatea kide den ehun sozialetan, e.a. Hezkuntza-proiektu honetan bertan, hamaika ebidentzia daude asmoak lorpen eta helduleku jakinetan gorpuztu direla erakusten dutenak.

"Ikastola" edo "Ikastolako hezkuntza-komunitatea" adierazpideak agian norbaitentzat 'neutro' gerta balitezke ere, pertsonak daude horien atzean. Ibaizabal Ikastolan ikasleak ditugu erdigunean, eta beraiei bideratuak dira, batez ere, gure indarrak. Hain zuzen ere, gainera, ez da ahaztu behar helduarorako formatzen ditugun etapa erabakigarrian daudela gure ikasleak: batxilergoan eta lanbide-heziketan. Etorkizuneko profesional konpetenteak izan daitezen formatzeaz gain, pertsona konprometituak izan daitezen hezten ditugu, eta hori beren protagonismoa ahalbidetu, sustatu eta indartuta baino ezin da lortu. Hortaz, gure ikasleak beren bizitzaren arlo guztietan agente aktibo izan daitezen dugu helburu: herritartasun aktiboa.

IRTEERA-PROFILA (konpetentzietara bideratutako paradigma berrirantz):

Eraldaketa norberarengandik hasi eta ikasle guztiengana heldu behar dela sinesten dugu, Ikastola osorik blaitu eta jendartea zipriztintzeraino. Horretaz jakitun, Batxilergoko ikasleen irteera-profila gaurkotu eta zehazteko prozesua borobiltzear da uneotan Durangaldeko Ibaizabal Ikastola. Tartean, kanpo-ebaluazioa ere egin genuen 2021. urteko otsailean eta martxoan.

Batxilergoko ikasleen irteera-profila birdefinitzeko, urte osoko estrategia sakona garatu genuen Ibaizabal Ikastolan 2020/2021 ikasturtean. Pandemiak markatutako hersturak barrura begiratzeko baliatu genituen. Ikastolako lantaldeak bideratutako prozesua adituen kanpo-ebaluazioarekin osatu genuen, eta, azken horren barruan, berariazko neurketak egin zizkieten ikasleei, ondorengo beren ezaugarriak baloratzeko: izaera eraldatzailea, analitiko kritikoa, kooperatibo-autogestionarioa eta euskalduna.

Ikastolen Elkartearen bitartekaritzarekin, neurketak Bartzelonako Reimagine Education Lab aholkularitza-taldeak gidatu zituen, eta bi unibertsitatetako 3 ikerketa-talde izan zituzten lankide, gainera: Ramon Llull Unibertsitateko PSICOPERSONA ikerketa-taldea, eta Mondragon Unibertsitateko ERAGIN eta EKHI ikerketa-taldeak. Emaitzak ustiatuta, 2021eko urrian ezagutuko genituen balorazio konparatiboak. Lanketa baliagarri gertatu zitzaigun Ibaizabal Ikastolan metodologiak eta edukiak aireberritzeko eta Ikastolan indarrean ditugun proiektuak egokitzeko, eta 2021/2022 ikasturtean bertan egitasmo berriak abiarazteko identifikatutako premiei hobeto erantzuteko, adibidez, bizikidetzaren eta hezkidetzaren alorrean.

Berrikuntza pedagogikoaren bidean, ikasle bakoitzaren gaitasunak muturrera eramateko lanketa da honakoa. Ikerketa-teknikak erabili eta irteera-profila zehaztuta, hezkuntzaren osotasuna eta etorkizuneko eskakizunak kontuan hartuta, Batxilergoa bukatzen dutenerako, ikasleengan zer gaitasun eta ezaugarri garatzea nahi dugun utzi dugu definituta.

Ezagutzak exekutatzeko gaitasuna dira konpetentziak.

Honako ezaugarriak zehaztu dira:

- Euskalduna
- Autonomia
- Kritikoa
- Hezkidea
- Ekintzailea

Segidako hauek bigarren mailakotzat jo dira:

- Egoki komunikatuko duena
- Nerabezaro osasungarria biziko duena
- Mundura zabalik egongo dena



Lanbide-heziketako ikasleen kasuan, Batxilergorako zehaztutako 5 ezaugarri nagusi horiez gain, beste 2 erantsi dira (irteera-profil profesionala) [uneotan, oraindik lanketan dago eta aldaketak gerta litezke definizioan]:

- Kooperatiboa
- Eraldatzailea

Ezaugarriak/konpetentziak identifikatuta utzita, horiek proiektuetara eta irakasgaietara eramatea da gero erronka. Zeregin konplexua da azken hori. Hori dela eta, hurrengo bizpahiru ikasturteak erabiliko dira lanketa horri segida emateko. Ezaugarrietako batzuen desglosea egingo da eta horien ezarpenari ekingo zaio, teorizazio-lana eta exekuzio praktikoa aldiberekotzeko; izan ere, teorizazio-lana bukatu arte ezarpenik batere ez egitea kontraproduzente ikusi da irakasle-taldearen motibazioari eta orain arte egindako lanari atarramendua ateratzeari begira.

BIDE-ORRIA:

Jabetzen gara, ordea, hezkuntza-sistemari oro har esleituak zaizkion helburuak eta funtzioak lortzeko, eskolaren markoan jardutea ez dela nahikoa. Horregatik, Ibaizabal Ikastolak berak ere, Ikastolako estamentu guztiak hezkuntza-proiektu honekin blaitzea ezinbestekoa izatearekin paralelo, inguruan dituen agenteak erakartzea eta beraiekin konfiantzazko aliantzak eraikitzea ere behar-beharrezkoa izango du aurreikusita dituen asmoak betetzeko, orain arte izan den bezala. Halaber, emaitzak esanguratsuak izateko, hezkuntza-proiektuak –nahiz eta dinamikotasuna berezkoa izan behar duen–, ‘estrategia-kutsua’ ere izan behar du; ezin da koiunturala izan. Beraz, momentuan momentukoari erantzun bat ematea baino, talaia garaiagoa behar du, ikuspegi orokorra hartu eta Ikastola etorkizunean non/nola/zertarako kokatu nahi duen behatzeko. Beraz, hemen jasotako ildoek jarraikortasuna ziurtatuta dute, Ibaizabal Ikastolaren ‘esentzia’ jasotzen duten neurrian. Lauzpabost urtean behintzat orokorki bide-orri eta bide-erakusle gertatu behar zaigu honako hezkuntza-proiektua, eta Ikastolako zuzendaritza-taldeak aldian-aldian beharrezko bultzada emango dio edukiak etengabe presente egon daitezen Ikastolaren funtzionamenduan (egituraketa aproposa zainduta, zereginak ahal bezainbeste sistematizatuta egingarriagoak eta efikazagoak izan daitezen, kontratazio berriak edukiotan formatuta, koordinazioa eta gainbegiraketa bideratuta, e.a.). Askoren artean osatutako dokumentua izateak (talde-lanean eginga izateak, alegia), gainera, zilegitasuna emateaz gain, epe luzerako erabilgarritasuna bermatzen dio hemen jasotakoari. Esan gabe doa, orobat, aurretiko gure eskarmentuan oinarritua dela hezkuntza-proiektu honen berrikuspina eta eguneraketa.

GARAPEN JASANGARRIA: Jasangarritasunaren barruan koka litezkeen ingurumenaz bestelako helburu batzuk berariaz dauzkagu islatuta Ibaizabal Ikastolaren hezkuntza-proiektuan. Horien artean inklusioa, kalitateko hezkuntza... daude. Azkenaldian eraiki ditugun proiektu/arduradun/liberazioei esker erantzuna ematea lortu dugu horiei guztiei: adibidez, genero-parekidetasunari Hezkidetza Proiektuari esker eman zaio garapena, eta baita desberdinkeriei ere -azken hau Bizikidetza-proiektutik ere jorratu nahi da 2021/2022 ikasturtean hasita indartsuago-. Jasangarritasun iraunkorreko beste zenbait helburu, noski, A30 proiektuan sartuta jorratzen ditugu: ingurumenaren zaintza eta ingurumen osasuntsua, birziklapena, 2. eskuko azoka, berrerabilera... Zuzeneko esku-hartzeak bezalaxe, ordea, ezinbestekoak dira zeharkakoak ere. Aipatu azken hauen artean, esaterako, kooperatiba garen heinean, lan duina eta enplegua sortu nahia dauzkagu, gure izaerari hertsiki lotuta ulertu behar ditugun berezko ezaugarri modura. Jasangarritasunera bideratutako beste helburu batzuek testuinguru orokorrak ahalbidetuta hartu dute indarra gurean: adibidez osasunak, bizitzea egokitu zaigun COVID-19 egoera lazgarrian (edo, abiatuberri dugun eta arestian aipatu dugun Bizikidetza-planari esker, Ikastolako giroa, bidezko jendartea, eta ongizate eta aliantza nahia).

ERRONKETAN OINARRITUTAKO METODOLOGIA AKTIBOAK: Zalantzarik ez dago Ikastolako, inguru hurbileko eta tokian tokiko ingurumen-arazoak konplexuak direla –baita bestelako gai batzuei lotutako arazoak ere–, eta zer esanik ez dimentsio lokaletik haragoko errealitateetara jotzen badugu. Dena den, gertuen dugun horretatik abiatuta lortuko dugu urrunagokoak diren egoera global edo espezifikoak ulertzea. Horregatik, erronketan oinarritutako metodologia eta esperimentazioa darabiltzagu Ibaizabal Ikastolan ikasleekin. Garapen jasangarriak dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko, Batxilergoko etapak zirrikitu gutxi ditu curriculuma egokitu ahal izateko. Ibaizabal Ikastolan Batxilergoko 1. mailan egiten dugu batez ere, eta baita dugun Lanbide-heziketako Goi-mailako Zikloan ere. Curriculum-egokitzapen horren adibide dira honakoak: Herrigintza Auzolanean, Bizitza Proiektua, Durangoko Airearen kalitatea... Aldiz, azpimarra jartzen diogu diziplinartekotasuna sustatzeari eta metodologia ikertzaileak eta parte-hartzaileak erabiltzeari. Azkena aipatu esparru horretan, hainbat dira ikasturtero bultzatzen ditugun ekimenak. Ekimen horietako asko urtetik urtera aldatzen dira, eta beste zenbait egonkorrak dira. Aldakorrak: hizkuntza-ekologiaren markoan, Euskaraldiaren inguruko lanketa; anatomian eta biologian, disezioak; ikaskuntza kooperatiboa jarraituta, didaktika-tourra historian zehar; Industria Teknologia II ikasgaiaren, smartphone gailuen desmuntaketa eta despiezea, bilketa-kanpaina eta berrerabilera GKE baten eskutik; jostailu ez sexisten gida eta produkzioa;

"Ezkutukoak: Emakumeak* STEM arloetan" erakusketa eta webgunea Industria Teknologia I irakasgaietan; Industria Teknologia I eta Marrazketa Teknikoa I ikasgaietako ikasleek ikastolako bigarren solairuko espazio guztietan kontsumitzen den energia elektrikoaren kalkulua, infografiak eta panelak 'Energia gurean' izeneko diziplinarteko erronkaren bitartez; e.a. Egonkorrak: bigarren eskuko azoka eguberri-garaian; erreka-garbitzea; Antzerki txikiak; elikagai-, diru- eta arropa-bilketak errefuxiatuen kanpalekuetarako, Durangoko Mankomunitatearen barruko herrietako etxegabekoentzat eta GKEentzat; StartInnova; e.a.

Hori guztia ikastetxe bateko curriculum-egituran eta prozesu didaktikoetan egoki txertatuta bideragarria izan dadin, doikuntza akademikoak egin(go) dira Ibaizabal Ikastolan: antolaketa/organigrama egokitu egin behar izan da proiektu gehiagori leku egiteko; irteera-profila eguneratu egin da 2020/2021 ikasturtean eta bertan begiz jotako konpetentziak ezaugarritu eta Ikastolaren antolaketan hedatuko dira 2021/2022 ikasturtetik aurrera; horren arabera metodologia osatuko da, dagoeneko abiatuta genekartzan prozedurak finduta (continuum bat moduan ulertu behar baitira berrikuspen metodologikoak, ikasleen izaera eta beharrianak dinamikoak diren neurri berean); eta ebaluazio-irizpideetan jasagarritasunarekin lotutako balorazio-elementu berriak zehar-lerro modura jasota egon beharko dira, aurretik jada bazeuden elementuekin batera (irakasgaiz irakasgaikako eduki propioez gain, 2021/2022 ikasturtean, ikaslearen espedientearen % 10 - % 20 bitarte konpetentzia hauen barnerapen-mailak eta jarrerazko neurgaiek puntuatuko dute Ibaizabal Ikastolan). Hezkuntza-proiektu honek aurreikusi duen planteamendu hau guztia, noski, progresibotasunez proiektatzen du Ikastolak, eta datozen hiruzpalau ikasturteetan erdietsitako aurrerapena, hobekuntza eta berrikuntza aldi-aldi ebaluatuko dira, ikastegiaren osotasunetik.

IREKITASUNA ETA LANKIDETZA: Ulermenak eta kritikotasunak egoerak aztertzen lagunduko diete gure ikasleei, eta egoera horietan hobetzekoak diren puntuak identifikatzen. Hori ez da nahikoa, baina. Alternatibak proposatzera iritsi behar dira. Besteak beste, udal foroetan, ikasle-kontseiluetan, Ikastolak herritarrekin eta herritar-elkarteekin interaktuatzeko dituen bilguneetan, taberna/kafetegian, 'Ateneo' deitzen diegun eskolaz kanpoko eztabaida-foroetan (20/21 ikasturtean transfeminismoaz Josebe Iturriotzekin, anorexiaz generoaren ikuspegitik Amaia Lekunberrirekin, lodifobiaz... hitz egin dute), e.a. ezagutarazten dituzte gure ikasleek beren hobekuntza-proposamenak.

Harremanetarako guneak diren horietan, jarrera propositiboz etorkizunera proiektatutako alternatiben berri emateaz gain, lankidetzan jarduteko aukera eman behar zaie ikasleei. Errealitate konplexuak ulertzeko, elkarrengandik entzun eta ikastea beharrezkoa da; baita errealitate horiei ekarpen baliotsuak egiteko ere. Elkarrekin jardunda urrunago iritsi eta emaitza hobeak eskura daitezkeela sinesten duenez Ibaizabal Ikastolak, bere hezkuntza-proiektuan udalerriko edo eskualdeko eskolen eta erakundeen arteko laguntza bultzatzeko mekanismoak ditu aurreikusita: udal eskola-kontseilua, A30 udal foroak, Izarkom, Goiener, software askearen aldeko taldeak, Precious Plastic lehiaketa, Cycle Friendly Employer lantaldea eta dinamika...

IKASTOLEN ELKARTEA – EHI:

Ibaizabal Ikastola Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko bazkide da hasiera-hasieratik. Horrek berebiziko eta erabateko isla du Hezkuntza-proiektuan, zentzu guztietan.

Ikastolen Elkartek 2021ean abiatutako BIHAR dinamikaren barruko endekalogoak euskal hezkuntza-sistemak izan beharko lituzkeen printzipio eta baloreen inguruan jasotzen duena aipatuko dugu jarraian ([oinarrizko printzipioak](#), [hezkuntzak landu beharreko baloreak](#) eta [hezkuntzaren antolaketari buruzko ezaugarriak](#)). *Erreparatu koloreei ikusteko endekalogoko puntu bakoitza zein printzipiori dagoen lotuta.*

Endekalogo horretako hainbat puntuk ere aurretik esan dugun guztia elikatu eta osatu beharko lukete (eta, bistan da, dagoen-dagoenean ere, lerrokatuta daudela Ibaizabalen pentsatutakoa eta inplementatutakoa, eta Ikastolen mugimenduaren globaltasuna).

-Euskal Curriculumetik eraikia

-Euskal Herria bere osotasunean landuko duena

-Euskara eta euskal kultura ardatz dituen

-Unibertsala

-Inklusiboa

-Gobernantza demokratikotik antolatua

-[Ikasleak bere egiten dituen ezaugarrietatik pentsatua](#). Irteera-profila: euskaldun konprometitua, bere buruarekiko konfiantzaduna, lankidetzan ikaskidea, erabakihartzaile kritikoa, euskaldun eleaniztuna, ekintzaile gogoetatsua, jokabide etikodunekoa, sortzailea, ikusmira zientifikoduna, orekaren zaintzailea.

-[Hezkidetzan oinarritua](#)

-[Laikotasunean heziko duena](#)

-[Ikastetxeei autonomia aitortuko diena](#)

-[Publiko-herritar eredutik sortua](#)

HARREMANAK – Aliantzak:

Ibaizabal ikastola ikastolen mugimenduko partaide da. Gaur egun Bizkaiko Ikastolen Elkartean bazkide-tuta dago eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko bazkide da. Konfekoop / Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko bazkide ere bagara.

Sortzaile diren ikastola bazkideekin harreman zuzena du; harremana estua da baita Galdaoko Eguzkibegi ikastolarekin ere. Ibaizabaleko bazkide laguntzaileen figura ere badago, eta hainbat kidek –pertsona fisikok nahiz juridikok– jokatzeko funtzio hori gaur egun.

Udalarekin harremanak dauzka gure Ikastolak. Durangoko udal Euskara Kontseiluko partaide gara eta baita Udal Eskola Kontseilukoak ere, esaterako. Durangaldeko Mankomunitatearekin ere bai; harremana usua da. Kirolene kirol-irakaskuntzen ikastetxe publikoarekin lankidetzak-akordioa dugu aspaldi. Hezkuntza-administrazioarekin harremanak taldearen bitartez bideratzen dira batik bat, ikastetxearen egunerokotasunarekin lotutako ohiko zereginenez aparte. Lanbiderekin ere finantziario-lerroa dugu duela urte askotatik.

Durangoko elkarteekin harremanak:

Berbaro euskara-elkartearekin harreman historikoa dugu. Berbaroren helburua Durangon euskararen erabilera bultzatzea denez, talde honekin Ibaizabalek modu eskuzabalean jokatzeko du egiten dituen eskarien aurrean: gelen alokairua ikastaroak antolatzeke, IKT tresnen erabilera uzterakoan... Halaber, herriko eta eskualdeko herritarrek, auzotarrek eta askotariko herritarren elkarteek Ikastolara jotzen dute, aurkezpenak egiteko dela, bilerak edo jardunaldiak egiteko dela, ikastaroak edo beste hainbat ekimen bideratzeko azpiegitura edo laguntza bila. Kasu batzuetan harreman puntualak dira eragileekin, edo jarduerak eurak dira puntualak; beste kasu batzuetan, egonkorrak eta epe luzekoak dira alde bien arteko kolaborazio-loturak. Herriko gainerako ikastetxeekin ere harreman normalizatuak ditugu, behar eta interes komunek elkarlotzen baikituzte.


Aliatuekin konplizitatezko harremanak izateak hainbat ekimen aurrera ateratzea dakar: aisialdiko begirale-ikastaroen eskaintza, bizikletaren erabilera sustatzeko kanpainak, elikagai-bilketak errefuxiatuen kanpalekuetarako, birziklatze-kanpainak, bigarren eskuko azoka, haur-hezkuntzako antzerkiak, Correo Taldeak ekintzailetasuna eta enpresa-ideiak bultzatzeko urtero egiten duen lehiaketa, hitzaldiak (feminismoa, anorexia, sexu-abusuak haurtzaroko...), antzerki-tailerra, aterpetxe soziala ezagutarazteko saioak eta erabiltzaileentzako arropa-bilketa, Kirol Errota gimnasioaren diagnostikorako ikasleen lantaldea, *Euskaraldia*, zuhaitzak landatzeko irteera, ortua, e.a.

Sorland diseinu-enpresa, Anboto hedabideak, Durangoko AEK eta EHE, GUKA, Bertsozale Elkartea, emakume wikilariak, Garabide fundazioa, Bizkaiko Odolemaileen Elkartea, Berria, enpresak... Ikus txosten honetan zehar atalez atal aipatutako gainerako erakunde lankideak ere.

Eremu ez formala ezinbestekoa da ibilbide akademikoa osoa izan dadin. Osagarri paregabea da, batetik, ikasleen gaitasunak muturrera eramateko, eta, bestetik, norbere erritmoan aurrera egin ahal izateko. Lankidetzak berealdiko aukera ematen digu eremu ez formalean ekosistema aberatsa eraikitzeko. Izan ere, konfiantzan eta eroso, hobeto ikasten da!

ESKAINZA AKADEMIKOA:

Hezkuntza-sistemaren egungo egituraketaren grafikoa da jarraian erantsi duguna, segidan azaltzen ditugun Batxilergoko eta Lanbide-heziketako gure eskaintzak non kokatzen diren eta zeri erantzuten dioten egokiago ulertzeko:




Batxilergoa:

Batxilergoan 2 modalitate eskaintzen dira Ibaizabal Ikastolan:

- Giza- eta gizarte-zientzien modalitatea
- Zientzia eta teknologiko modalitatea

Antolaketa eta Ikasketa-plangintza:

» Batxilergoko lehenengo maila:



01: giza/gizarte-zientziak

A AUKERA	B AUKERA
Ikasgai komunak	Ikasgai komunak
Euskara	Euskara
Gaztelania	Gaztelania
Ingelera	Ingelera
Filosofia	Filosofia
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Matematika GGB	Latina
Modalitatezkoak	Modalitatezkoak
Mundu Garaikidearen Historia	Mundu Garaikidearen Historia
Ekonomia	Ekonomia
Literatura Unibertsala	Literatura Unibertsala
Espezifikoak	Espezifikoak
Frantsesa / Kultura Zientifikoa / IKT I / ICT (Basques) / Ikus-entzun	

02: Zientziak

A AUKERA	B AUKERA	C AUKERA
Ikasgai komunak	Ikasgai komunak	Ikasgai komunak
Euskara	Euskara	Euskara
Gaztelania	Gaztelania	Gaztelania
Ingelera	Ingelera	Ingelera
Filosofia	Filosofia	Filosofia
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Matematika I	Matematika I	Matematika I
Modalitatezkoak	Modalitatezkoak	Modalitatezkoak
Fisika-Kimika	Fisika-Kimika	Fisika-Kimika
Biologia-Geologia	Biologia-Geologia	Industria Teknologia
Anatomia Aplikatua	Marrazketa teknikoa	Marrazketa Teknikoa
Espezifikoak	Espezifikoak	Espezifikoak
Frantsesa / Kultura Zientifikoa / IKT I / ICT (Basques) / Ikus-entzun		

» Batxilergoko bigarren maila:

01: giza/gizarte-zientziak

A AUKERA	B AUKERA	C AUKERA
Ikasgai komunak		
Euskara eta Literatura II		
Gaztelania eta Literatura II		
Ingelesa II		
Espainiako Historia		
Matematika GGB II		
Modalitatezkoak	Modalitatezkoak	Modalitatezkoak
Filosofiaren Historia	Geografia	Filosofiaren Historia
Enpresaren ekonomia	Enpresaren ekonomia	Geografia
Artearen Historia	Artearen Historia	Artearen Historia
Espezifikoak		
Frantsesa II / Psikologia / Administrazio-prozedurak / IKT II / Industria-teknologia II		

02: zientziak

A AUKERA	B AUKERA	C AUKERA	D AUKERA	E AUKERA	F AUKERA	G AUKERA
Ikasgai komunak						
Euskara eta Literatura II						
Gaztelania eta Literatura II						
Ingelesa II						
Espainiako Historia						
Matematika GGB II						
Modalitatezkoak						
Fisika II	Kimika II	Kimika II	Kimika II	Fisika II	Fisika II	Fisika II
Marrazketa Teknikoa II	Biologia II	Biologia II	Biologia II	Marrazketa Teknikoa II	Kimika II	Kimika II
Artearen Historia	Filosofiaren Historia	Enpresaren ekonomia	Artearen Historia	Enpresaren ekonomia	Biologia II	Marrazketa Teknikoa II
Espezifikoak						
Frantsesa II / Psikologia / Administrazio-prozedurak / IKT II / Industria-teknologia II						

Indartze-saioak: ikasleek eguerdietan edota arratsaldeetan —eskola-orduz kanpo, alegia— aukera dute irakasleekin zalantzak argitzeko saioak egiteko. Ikasleak banaka zein taldean gera daitezke. Batez beste urtean horrelako 100 saiotik gora egiten dira. Lan-merkaturatzeko eta unibertsitate-ikasketekin jarraitzeko aukeren inguruan ikasleak informatzeko ere, hainbat bide jorratzen dira urtero, gela-barruko lanari zentzua eta balio erantsia ematen diotenak (orientazioa deritzogu): ikasle ohien bitartez, adituak gurera propio ekarrita, unibertsitateen eskaintza ezagutzeko azoketara irteerak eginda, e.a.

Lanbide Heziketa:

Lanbide-heziketan Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria izateko zikloa eskaintzen da. Erreferentziazko legeak urriaren 29ko 1394/2007 ED eta uztailaren 5eko 462/2009 Dekretua dira.

Ikasgaiak (eta bakoitzaren ordu-kopurua):

1. mailan:

Haurren autonomia pertsonala eta osasuna. (198 o.)
 Adierazpena eta komunikazioa. (198 o.)
 Garapen kognitiboa eta motorra. (198 o.)
 Garapen sozioafektiboa. (165 o.)

Gizarte-trebetasunak. (132 o.)
 Laneko prestakuntza eta orientabidea. (99 o.)

2. mailan:

Haur-hezkuntzaren didaktika. (200 o.)
 Haur-jolasa eta bere metodologia. (140 o.)
 Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea. (100 o.)
 Hurrei arreta eskaintzeko proiektua. (50 o.)
 Lehen laguntzak. (60 o.)
 Ingeles teknika. (40 o.)
 Enpresa eta ekimen sortzailea. (60 o.)
 Lantokiko prestakuntza. (360 o.)

Bigarren mailan *Lantokiko Prestakuntza-praktikak* 360 orduko praktika-saioak egiten dituzte. Praktika hauek Ibaizabaleko bazkide sortzaileak diren ikastoletan zein inguruko ikastetxeetan egiten dituzte. Aurreikusita dago legeria aldatuko dela, eta horretara moldatuko da gure ikasleen praktikaldia. Halaber, Hezkuntza-proiektu honetan jasotako edukia antolatu dira Proiektua egin zen unean indarrean zegoen araubidearen arabera. Hezkuntza-legea aldatzearen ondorioz, edukiotan egokitzapenak egitea balegokio, horretara ekarriko dira hemen jasotako guztiak, bistakoa denez.

Ziklo honek dituen lan-irteerak lan-mundura honako hauek izan daitezke: haur-eskolak 0-3 zikloan tutorea, haur-animazioan, aisialdiko taldeetan, hezkuntza bereziko laguntzaile gisa, ludoteketan, adin txikikoen harrera-zentroetan, ospitale-eskoletan...

Hezkuntza Ez Arautua:

Arlo honetan aurrerapauso handiak izan dira Ibaizabal Ikastolak eman dituenak: urtez urte ikastaro edo/eta ziurtagiri profesionalen kopurua igotzen doa, parte-hartzaileen kopurua bezala.

Hezkuntza-eragile kooperatiboa gara. Elkarrekin ikasten, pertsona konpetenteak hezteko dugu helburu, garapen pertsonala erraztuz. Horretarako, beharrezkoa zaigu irakaskuntza ez arautua aintzat hartzea, komunitatea zentzu zabalagoan hartu ahal izateko.

Langile eta langabetuen formaziorako eskaintza zabaltzea eta ikastaro guztiak euskaraz ematea izango da datozen urteetako asmoa.

Zerbitzuak:

▫ Hezkuntza-sekzioan:

Ikasle guztiek dute jantokian gelditzeko aukera.

Autobus-zerbitzua dugu.

Espazioen erabilera: Ibaizabal Ikastola herrira zabalik dagoen ikastola bat da, honen adierazle da eskolaz kanpoko orduetan ikastolako espazioek duten erabilera. Ohikoena da ikasle-taldeak, zein bakarka, azterketa bezperetan ikastera gerturatzea, asko ikasle ohiak dira edo unibertsitatean ikasten ari diren beste batzuk. Ohikoa da Durangoko elkarte desberdinek euren batzarrak hemen egitea, euren dinamikak egiteko Durangon espazio egokirik bilatzen ez dutelako...

▫ Errota sekzioan eta herriari zabalik:

Taberna-, ostatu-, aterpetxe- eta gimnasio-zerbitzuak eskaintzen ditu Ibaizabal Ikastolak. Zerbitzu hauetatik ateratzen den mozkina Hezkuntza-esparruan ditugun proiektu berriak finantzatzeko erabiltzen da.

Aterpetxe soziala: etxerik gabe kalean bizi diren pertsonentzako aterpe-zerbitzua da, Durangaldeko Amankomunazgoarekin hitzartuta (2012tik).


ANTOLAKETA-MODUA [aipamen hutsa]:

Durungaldeko Ibaizabal Kooperatiba-elkartearen Estatutuek honela xedatzen dute sekzioen antolaketa: Sekzioek berezko arduraduna bai, baina ez dute berariazko erabaki-organorik izango (ordezkaritza, kontratazio-ahalmena...), eta kooperatibaren organoen baitan jardungo dute.

Ibaizabalen honako Hezkuntza-proiektuak, berriz, aipu orokor hau egina dio antolaketari: Ibaizabal Ikastolak gizarte-titularitatea du, irabazi-asmorik gabekoa eta ekimen herritarraren fruitu dena. Antolaketa aldetik beste sareekin bereizten gaituen ezaugarria da honako hau.

Organigrama:

Bazkideen Batzar Orokorraren pean:



Antolaketa-egiturak kooperatibaren lan-ildo desberdinak uztartzea, ez arautua arautuaren osagarritzat hartzea, e.a. elikatu beharra hartu zuen helburu azken Plan Estrategikorako gogoetak.